

EZ DA KAXA BAT

Testua eta ilustrazioak: ANTOINETTE PORTIS

Itzulpena: EVA LINAZASORO

Azal gogorrean kuadernatua. 22 x 22 zm. 40 orr. 13 €.

- THEODOR SEUSS GEISEL 2007. SARIAREN OHOREZKO LIBURUA
- IRAKURKETA PROGRAMA OFIZIALA 2008 (SEP México)
- GAZTE ETA HAURRENTZAKO LIBURURIK ONENAK 2009 (Banco del Libro de Venezuela)
- PROGRAMA NATI PER LEGGERE 2012 (Italia)
- HEZKUNTZA MINISTERIOAREN HAUTAKETA 2015 (Argentina)

Ez da kaxa bat (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-998-2. Lehen irakurleak.

No es una caja (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-96957-22-0. Primeros lectores.

Non é unha caixa (gallegoz)

ISBN 978-84-8464-326-5. Demademora.

No és una calxa (katalanez)

ISBN 978-84-16804-21-4. Primers lectors.

Non è una scatola (italieraz)

ISBN 978-88-95933-32-0. Primi lettori.

Zergatik zaude kaxa batean eserita?

Ez da kaxa bat.

Zertan ari zara kaxa horren goitian?

Ez da kaxa bat!

Kaxa bat horixe besterik ez da... baldin eta ez bada kaxa bat.

Ipuin honetako protagonistak horixe erakusten digu, hots, kaxa bat gure irudimenak uzten digun guztia izan ahal dela: mendi bat, espazio sutziri bat... Bere haurtzaroko bizipenak birsortuz, egileak aspaldiko baliabide urrien erabilpenaren aldeko apustua egiten du: jolasteko ia bitartekorik gabe, gauzarik xumeena jostailurik ederrena bilakatu daiteke.

Bilduma bitxi eta interesgarria, bai edukiaren aldetik bai eta aurkezpenagatik, liburuaren azalek kartoizko kaxen uki, kolore eta itxura bera baitute. Argumentua oso sinplea da, esaldi labur eta zuzenez osatua, pertsonaiaren eta kaxaren erabilerari buruzko galderak egiten dizkion ahots orojakile baten arteko elkarrizketa moduan. Oinarrizko marra espresiboez eginiko ilustrazioetan, berriz, kolore eta perspektiba jokoak nabarmentzen dira. Bereziki deigarria da errealitatearen eta fikzioaren arteko dikotomia maila artistikoan adierazteko modua: irudi imaginarioa jatorrizkoari gainjartzen zaio, irakurleari begirada ezberdin bat eskeiniz. Horrela, kaxa bat besterik ez dirudiena, orrialdez orrialde, beste zerbait bilakatzen da: lasterketa auto, robot, suak hartutako etxe... eta abar.

Irakurleak espazioan kokatzeko oinarrizko kontzeptuetan trebatu ahal izango dira: goitien-beheitian, aitzinean-bizkarrean, barnean-kanpoan, horizontalean-bertikalean... Liburutxo honek mundu berriak ezagutzera garamatza, eta irudimena eta haur eta helduen arteko ideia trukaketa bultzatzen ditu.




■ **Gaia:** kaxa baten erabilerak.

■ **Zein adinetarako:** 3 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** irudimenaren garapena, fikzioaren eta errealitatearen arteko jokoak; espazioarekin lotutako alderdiak; liburuak kartoizko kaxa baten itxurarekin duen antzekotasuna .

Antoinette Portis

Arte Graduduna Kaliforniako Unibertsitatean. Disney Consumer Products konpainiako sorkuntza zuzendaria da. Egun Kalifornian bizi da. *Ez da kaxa bat* haurrentzako bere lehen albuma da. Theodor Seuss Geisel Sariaren Ohorezko Liburua izendatu zuten 2007an, Estatu Batuetan argitaratutako haur liburu onenei ematen zaien saria, aipatu egilearen omenez, berak ez baitzuen alferrik aldarrikatu neska-mutilek ere helduen helburu berbera dutela: "Barre egin, aldatu, eta ongi pasatu".
<http://www.antoINETTEportis.com>



www. **Kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com
etxea
soltxate@pamiela.com